


Astekaria



elgoi




MIREN  
GORROTXATEGI

**Arrakastaren teklak jotzen**



**ASTIGARRAGA**

**garajea**



Oporretara  
joan aurretik  
**ERREBISATU**  
**GURPILAKI**



# M Udaberriari begira % 20a merkeago

BAZKIDE  
TXARTELA  
% 20a  
MERKEAGO

SHEErako (IVEF)  
prestakuntza  
IKASTAROA  
(Aste Santutik

*Udaberrian  
zatoz  
zu ere*

PODOLOGIA  
ZERBITZUA  
Aste Santutik  
aurrera Bartzelonako



“ARETO  
DANTZAK”  
(Aste Santutik aurrera)

MASAIA  
IKASTAROA  
(Maiatzetik aurrera)

PALA BINAKA eta  
SQUASH  
txapelketa  
(Aste Santutik

OHOkoko ikasleentzat  
EKINTZA  
BEREZIAK  
IGERILEKUAN

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegi, Marivi Agirregomezkorta, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Idoia Esnaola, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, ALBERTO Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabaló, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.600 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-  
1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa  
fundación kutxa

# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

# Behi eroen gaitza

**J**oan den astean Erresuma Batutik etorritako albisteak haragi kontsumoarekiko errezelo eta beldurra zabaldu du nonahi. Scrapie birusak jota hildako ardien hezurrekin egindako irina abelgorrientzako pentsuetan osagarri proteiniko gisa erabiltzeak sortarazi du abelgorrien Entzefalitis Espongiformea (BSE) gaitza. Behi eroen gaitzaren ondorioz hildako abelgorrien okela jateak gizakietan Creutzfeldt-Jakob sindrome hilgarria eragin dezake. Euskal Herriko hiru administrazioetako agintariek argi utzi nahi izan dute hemen ez dagoela arriskurik. Izan ere, Erresuma Batutik apenas inportatzen da Euskal Herrira abelgorrien okelarik, eta hemen ez omen da atzeman behi eroen gaitzik. Baina beste datu kezkgarriago batzuk irakurri ahal izan ditut egunkarietan; gure haragien %30a bertako okela dela eta %70a Europa edo beste autonomi elkarte batzuetakoa. Batez ere, Alemania, Noruega eta Dinamarkatik ekartzen dute. Datu hauek bietako


bat adierazten didate: baserritarrek ekoizten dutena baino eskaera handiagoa dagoela edo kanpokoa merkeagoa dela eta errazago saltzen dela.

Europar Batasuneko partaide izanik, bertan diseinatu eta jarraitzen den nekazal politikak produktibitatearen barnean kokatzera behartzen gaitu (gure baserritarren nekazal eredu ez dator bat Europako Nekazal Politikarekin). Horrela, gure baserritarrek haragiaren produkzio kuota mugatua dute eta diru-laguntza gehienak Europa iparraldeko herriek jasotzen dituzte. Beraz, Erresuma Batuan gertatutakoa ekoizpenaren gehiegizko industrializazioaren ondorioetariko bat dela esan daiteke.

Hobe izango da, beraz, etxerako erosketak egiterakoan, jan behar dugun produktua nongoa den jakiten badugu, nola ekoiztua dagoen, bere berezitasun eta abarren berri izaten badugu. Eta dudarik ez izan hemengo baserritarrek eskaintzen duten okelari buruz, kalitate handiko okela da eta.

**Idoia Esnaola**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

**Kartelak eta pankartak kentzea zeinen ardura da?**

**Diru gasturik ba al dauka?**

Udaletxekoekin egon gara eta bertatik esan digutenez, pintadak garbitzeko ardura daukan enpresak kentzen ditu kartelak eta pankartak. Diru gastuari dagokionean, 6.500.000 pta. dela lan guztien kostua adierazi digute.



## KEXAK

6. mailaako ikasle batzuen kexa jaso dugu. Eurak esan digutenez, Eskolarteko Kirolak aste barruan ere ipintzen dizkiete batzuetan eta hau ez zaie batere egokia iruditzen, bestela ere nahiko okupatuta omen dute astea.



## TXALOAK

IMI informatika gelara joaten zen pertsona batek deitu digu azken denboraldi honetan hango arduradun egon den Aitor Eguren elgoibartarra txalotzeko. "Lan bikaina egin duela uste dut. Eskerrak eman nahi dizkiot ikastera joan garenoi eman digun tratuagatik. Eskerrik asko!"

## ESKUTITZAK

**Diru laguntzak merezi dituztenei!**

**H**arritu egin nintzen aldizkari honetan Udaletxe eta guass dantzalekuari buruzko berria irakurri nuenean. Berri honek zioen Udaletxea akordio batera iritsi zela, eta akordio honen bidez, Guass dantzalekuari 2.000.000 pta emango dizkiola baldin eta honek larunbat arratsaldeetan alkoholdun edaririk salt

**Datorren astean ez dugu BARRENik kaleratuko!**

Guk ere oporralditxo bat merezi dugu eta apirilaren 12an itzuliko gara albiste mordo batekin. Ordura arte, ondo pasa!

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



## ERRETRATU ZAHARRA

**A**ste honetako erretratua **Primitivo Martinez** zenak lagatkoa da, eta berari J.I. Garzarzak eman omen zion. Erretratua Gorputz Egunekoa dugu, "Mielo" egunean ateratkoa. Argazkia 1910ekoa da.

Egun honetan gaixoei komunioa ematen zien Parroko Jaunak. Prozesioan joaten zen herria gaixoen etxebizitzetara atarietaraino eta gero parrokoa eta sakristaua gaixoengana igotzen ziren. Parrokoa Pasioaren azpian joaten zen eta prozesioaren ordena honako hau izaten zen: parrokoa aurrean, zinegotziak ondoren, gero herriko aguazila eta herritarrak atzealdean. Amaieran, herritarrek parrokoari elizaraino laguntzen zioten.



**JOMIX**  
Automoción C.B.  
Santa Klara 13 - ELGOIBAR - Tel. 74 21 08

### AUTOMOZIOA

Монеплат гүс гүгүт к кевгс

ZERBITZU AZKARRA eta AUTOAREN

- Diagnostiak, aire MANTENUA, Katalizatzaileak...
- Erroberen orekaketa eta alineazio elektronikoa.

# Bide berriak eraikitzen

Herri baten historian bere bilakaera geografikoak zerikusi handia du. Elgoibar bailara batean dago kokatua, mendi artean. Eta kosta bertan dauka, 12 km.tara. Gaur egun barnealdera joatea nahi duenak nahi beste aukera ditu. Itsasoa nahiago duenarentzat ere, beste horrenbeste daude. Autopista, errepidea, trenbidea... Eta horiez gain, familia bakoitzeko auto bat gutxienez. Non dago baseritik herrira jaisteko astoa baino beste garraiorik ezagutzen ez zen garaia? Ez dira horrenbeste urte pasatu eta, hala ere, gauzak asko aldatu dira. Onerako edo txarrerako. Elgoibar garatzea ezezik, bertako biztanleak hemen bizitzea eta kanpotarrak erakartzea izango da hurrengo urteetako erronka.

**G**ure aiton-amonek sekula ez lukete imaginatu ere egingo kalean ia pertsona beste kotxe ikusiko zituztenik noizbait. Baina hala izan da. Ez lukete pentsatuko garai batean kale erditik igarotzen zen errepidea, herri kanpotik pasako zenik, ez eta autopistarik eraikiko zutenik ere. Garai batean, herritik kanpora ateratzea ez zen gauzarik normalea. Eta gaur egun, ahal dugun guztietan, inguruko herrietara jotzen dugu. Zenbat eta urrutiago, orduan eta hobeto.

Elgoibar oso ongi komunikatua dago. Edozein hiriburutara, edozein herritara joan gaitezke nahi bezala. Bai autopistaz, bai errepidez, bai eta trenbidez ere. Kotxez nahi badugu, trenez gehiago gustatzen bazaigu eta autobusez erosoena irudituz gero, zerbitzuak behintzat, orduetegi guztietara egokituak daude. Alde horretatik, beraz, ezin gara kexatu. Lehen Urola alde aldrebesago geratzen bazen ere, Azkoitiko bide berria egin zutenetik egoera asko aldatu da. Eta badi-rudi, 1998. urte aldera hasiko dituztela Eibar-Gasteiz autobidearen eraikuntza obrak.

Arazoa, ordea, bestelakoa da. Izan ere, komunikazio hauek, herritik kanpora ateratzeko erabiltzen baititugu. Elgoibarrek ez du jendea

erakartzen eta, okerragoa dena, gazte asko eta askok arrazoi ezberdinak tartean, erbestera aldegiten du. Hori dela eta, Udalak hainbat proiektu gauzatu nahi ditu aurrera begira Elgoibar indarberritzeko.

## Bizitzeko eta bisitatzeko herria

Lehenik eta behin herritarrak, gazteak batez ere, herrian bertan geratzea lortu nahi da. Horretarako ezinbestekoa da batetik, lanpostuak Elgoibarren sortzea eta bestetik, etxebizitza eskuragarriak eraikitzea, prezio onean salduko direnak. Bigarren erronka, kanpotarrak Elgoibarrera etorri eta bertan gu-

**Elgoibartarrok kanpora joateko ohitura dugu. Jendea erakartzea da hurrengo erronka.**

txienez pare bat egun geratzea da. Gaur egun hurreratzen direnak, pasorako besterik ez dira geratzen, beste norabaitera joateko bidean edo lan kontuek hala bultzatuta. Hori kontuan hartuta ekin zaio aski ezagunak diren Izarraitz Bizirik eta Ekain proiektuei, Mutriku, Deba eta Mendaroko Udalekin elkarlanean. Honi guztiari komertzio eta ostalaritzaren bultzada ere gehitu beharko genioke. Era batera edo

**Errepidea, trenbidea eta  
autopista. Hiru aukera  
Elgoibartik nahi dugun tokira  
joateko.**


bestera, herriak izan ditzakeen era-  
kargarritasunak bultzatuz eta  
berriak sortuz, gurea ere bizitzeko  
eta bisitatzeko aukerako herria  
bihurtzea litzateke asmoa.

**Eibar-Gasteiz**

Badirudi azkenean Eibar-Gas-  
teiz izeneko autopistaren proiektu-  
ak aurrera egingo duela. Hasieran  
Maltzaga-Urbina bezala ezagutu  
zenak nahiko istilu eta eztabaida  
sortu zituen eta irtenbide bat topatu  
nahian NIP taldeak jarri ziren mar-  
txan.

Herritar eta instituzioek egini-  
ko alegazioak kontuan izanik, alda-  
keta bat eta beste egin eta gero,  
2.300 miliotan igo da proiektuaren  
aurrekontua, guztira 100.000  
milioikoa izanik. Hortaz, proiektua  
hasieran Erlai izeneko ibilbidetik  
pasatzen bazen ere, Deba ibaiaren  
bailaratik, badirudi azkenean Sagar  
Erreka erreka toa aukeratu dela;  
honela autobiak ez du bailara  
zeharkatuko. Erabaki hau hartu da  
ingurugirorako inpakto txikiagoa  
suposatuko duelako.

Proiektua hiru enpresek egingo  
dute, bakoitzak zati baten ardura  
izanik eta 9 hilabeteko epea dute.  
Obrak, berriz, 1998. urtean hasia  
nahi da. Diru publikoaz gain, pribatua  
ere erakarri nahi denez, litekeena  
da behin bukatu eta gero, auto-  
pistan peajea ordaindu behar izatea.  
Printzipioz, Arabako eta Gipuzkoako  
Diputazioak, Eusko Jaurlaritza  
eta Europar Batasunak hartuko dute  
parte aurrekontuan.




## Ba al duzu errezelarik behi zoroen gaixotasuna dela eta?



### JUANA ZABALA

44 urte, etxekoandrea

Hemen momentuz ez dao problemarik baina badaezpada kontuz ibili bihar da. Hala ere, badakit hemen bertako okelia saltzen dabela eta trankil jaten dot.



### PEDRO RUIZ

41 urte, gidaria

Ni haragijale amorratua naiz, denetik jaten dut inolako kezkarik gabe. Haragiaren arazoa hemen ez dago, nik bertako produktua erosten dut eta konfidantza osoa dut.



### M.CARMEN ALONSO

30 urte, langabetua

Nik lehen beste erosten dut haragia. Euskal Herrian ez dago arazorik eta nik errezelarik gabe erosten dut. Horrelakorik sekula ez gertatzea espero dut.



### PEPITA ASTIGARRAGA

66 urte, etxekoandrea

Okela gitxi jaten dot eta arazo horrek ez nau preokupau. Ostantzian, gurian hemengo produktua erosten da, zertifikauta dauana ahal darian, eta konfiantza guztixakin jaten dou.



### ROSARIO CACERES

49 urte, etxekoandrea

Horixe errezeloa daukadala! Ez dut txahal gehiegi erosten baina gaur egun beldurra ematen dit yogurrak erosteak ere. Horrelakoak entzutean, denari hartzen diot susmo txarra.



### LOURDES FAJARDO

29 urte, ileapaintzailea


Horrelako gauzak entzutean kezka sortzen zait. Haragia erosten jarraitzen dut baina errezelo piskatekin. Konfidantza daukat baina askotan ez dakigu zer jaten dugun.



Esozia Auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

## ESoZiA JAtETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.  
Zugandik oso gertu!*






# GUREA NEURRIRA EGINDAKO LANA DA



Jostunak alkondara neurrita egiten duen bezala, guk ere publizitatea neurrita egiten dugu.

SALTZEN DUEN  
PUBLIZITATEAN  
SINESTEN DUGU



## ■ Aste Santua Morkaikorekin

Urtero bezala Morkaiko Mendizale Elkartek Aste Santuko oporrak Frantziako Gavarnie herriko aterpetxean igarotzeko bost bat eguneko egonaldia antolatu du. Eskiatzeko eta mendian ibiltzeko aukera izango da. Plaza mugatuak direnez lehenbailehen izena ematea komeni da. Eginkizun horretarako Morkaikoko zuzendaritzakoekin harremanetan jarri edo 74 02 97 zenbakira deitu.

## ■ Karakatera martxa

Karakate Bizirik plataformak hainbat ekitaldi antolatu ditu Elgoibar eta Plazentzian. Larunbatean, hilak 30, Karakatera mendi martxa izango da goizeko 10etan Plaza Handitik irtengo direlarik. Karakateko tontorrean salda eta txorizoa banatuko da eta trikitilariak eta txalapartariak giroa alaituko dute. Zapatuan bertan, Soraluzeko Gaztetxean *Ostikada* taldeak kontzertua emango du gaueko 10etatik aurrera. Iragan den astean zehar, berriz, Soraluzen eta Elgoibarko Mekanikan Karakateri buruzko hitzaldiak izan ziren.

## ■ HBren enkartelada

Elgoibarko HBk "Nazio bat gara, independentzia" lemapean enkartelada egingo du apirilaren 1ean, astelehena, San Frantzisko iturri parean. HBk abertzale guztiei deitu nahi die ekitaldian parte hartzeko.

## ■ Odol ateraldia

Datorren apirilaren 12an, ostirala, odola aterako dute Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan arratsaldeko 6etatik aurrera. Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko talde batek aurrez deitutakoei odola aterako die. Emaile izan nahi duten guztiei luzatu nahi diete gonbitea elkartekideek.



AZKUE

**Goenkalekoak Elgoibarren!** ETBko Goenkale telesail ezagunean parte hartzen duten zazpi antzezle Herriko Antzokian izan ziren pasa den ostegunean Kilometroen ekitaldien barruan. Ikastolako haurrek telesaileko hainbat korapilo argitzeko ahaleginean, galdera mordoska luzatu zizkieten aktoreei. Ekitaldi amaieran Kilometroetako Beder eta Sei maskotek oroigarri bat eman zieten Goenkaleko antzezleei. Ikusminik ere sortu zuen herritarren artean Goenkalekoen presentziak. Jendez inguratutik eta autografoak sinatzen aritu ziren herritarrek eskatuta. San Frantzisko kaleko Kilometroak-eko dendara urreratu ziren bertan luntxa eskaini zitzaielarik. Kilometroen arropa ere eskuratu zuten telesailean agertzeko asmoz. Goenkalekoak ezezik, ETB 1eko Super Bat programakoak ere Herriko Antzokian izan ziren ekitaldia grabatzen eta neska-mutilei elkarrizketak egiten gero telebistan emateko.



AZKUE

**San Lorentzoko pilotalekuan** Elgoibarko Eskuz Binakako Pilota Txapelketaren azken partidua jokatu zen zapatuan. Urtero jokatzen den herriko txapelketa honek bi maila izaten ditu. Lehenengoan Beraza eta Gabilondo izan ziren txapelkunak 22 eta 18 irabazi baitzieten Gabilondo eta Osorori. Bigarren mailako partidua 22 eta 13 tantutara amaitu zen, Lendinez eta Balzola bikotea txapelkun eta Loiola eta Izagirre bigarren geratu zirelarik.

## Erramu eta Pazko igandeko prozesioak berreskuratuko dira aurten

Duela 20 bat urte utzi zitzaion egiteari Elgoibarren Aste Santuko prozesioa. Prozesioen kristau ohitura berreskuratuko nahian, aurtengo Aste Santuan bi prozesio egingo dira. Lehenengoa Erramu domekan, hilak 31, eta bigarrena Pazko igandean, apirilak 7. Ibilibidea honako hau izango da: Plaza Handian hasi San Bartolome kaletik zehar jarraitu eta Errosariotik gora berriro Plazaraino. Honez gain, Aste Santuan elikizun bereziak egongo dira. Ostegun Santu egunean meza izango da parrokiari 19etan eta 22etan. Santa Klaran 18etan eta 21,30etan eta Madalan 19,30etan eta 22etan.

Ostiral Santuko elizkizunen ordutegia jarraian: Gurutz Bidea goizeko 11,30etan Santa Klaran eta 10etan Madalan. Jesusen heriotzaren ospakizuna arratsaldeko 16,30etan izango da Santa Klaran eta 17,30etan parrokiari eta Madalan. Larunbat iluntzean, 21etan, ospatuko da Parrokiari pazko

barauaren elizkizuna, 22etan Santa Klaran eta 20,30etan Madalan. Azkenik, Pazko igandean Santa Klarako eta Madalako goizeko elizkizunez gain, meza nagusia izango da Madalan 12,30etan eta meza nagusia eta prozesioa goizeko 11etan Parrokiari. 12,30etan meza eta bataioak egongo dira parrokiari.




**Ordutegi aldaketa** egitea tokatzen da larunbatetik igandera bitarteko gauean. Goizaldeko 2etan ordubete aurreratu beharko dira ordularien orratzak. Hortaz, ordubietan hirurak izango dira. Udaberriaren etorrerarekin eguna luzatu eta gaua moztu egin bada ere, ordu aldaketarekin are luzeagoa izango da eguna eta motzagoa gaua. Ongietorria bedi udaberria.

## ■ Aberri Egunean ikurriña jartzeko mozioa

Elgoibarko HBk Aberri Egunean Udaletxeko masta nagusian ikurriña bakarrik zintzilikatzea eta etxe guztietan ikurriña agerian ipintzea proposatuko du gaur, ostirala, izango den Udal Plenoan. Mozio honen bi puntuak Udal ordezkariak duten alderdi politikoek bereak egitea da HBren asmoa. Ekimen honen bultzatzaile dira Euskal Herriko Ezker Abertzalea osatzen duten indar politikoak: Euskal Batasuna (EB), Ezkerreko Mugimendu Abertzalea (EMA), Herriaren Alde (HA) eta Herri Batasuna (HB).

## ■ Enpresa ideia orijinalen saria Egoibarrera

Herriko Institutuko 1. LOGSEko ikasle den Maider Martinek ESTE unibertsitateak antolatzen duen ESME Junior enpresa ideia orijinalen lehiaketan 3. saria irabazi du. Maiderrek piszifaktoria baten antolamendua ideiatu zuen. "Lan bat egin behar genuen ekonomiarako eta lehiaketa hori zauzala jakin nabian presentatu ein nitzan". 3. saria egokitu diote epaimahaikoek Maiderri bai eta beste talde bati ere, "bixen artian banatu degu sarixa". Lehiaketan BBB, LH eta UBiko ikasleek har zezaketen parte, taldeka bai eta banaka ere.



Mikel Lizarralde:

## “Solidaritatea beharrezko konpromezua da”

23 urte dituen elgoibartar gazte honek zortzi bat urte daramatza Gurutze Gorrian lanean.

Ezertxo ere kobratu gabe bere solidaritate printzipioei jarraiki lan egiten du eta “gogoko aldapan nekerik ez” dioen esaera zaharra beste edozeini baino hobeto egokitzen zaio

Mikeli. Umetan mediku izan nahi bazuen ere, egun psikologia ikasketak egiten ari da eta bere afizioen artean futbola (Errealzale amorratua da gainera), saskibaloia eta bere neskaekin egotea azpimarratzen ditu. Ez bereziki ordena honetan.

- Zein da zure lana?

- Alde batetik Gazteen Gurutze Gorriko zuzendaria naiz eta bestetik, zerbitzu orduak betetzen ditut larrialdiren bat gertatzen bada anbulantzian irteteko.

- Zer dela eta sartu zinen bertan?

- Nere ama duela urte pila bat Elgoibarko DYAn lan egiten hasi zen eta ordutik giro hori bizi izan dut etxean. Ni ere DYAn hasi nintzen zerbitzu batzuk eginez. Gero DYA itxi eta Gurutze Gorria sortu zenean lanean jarraitu nuen.

- Prestakuntzarik behar du?

- Printzipioz ez baina zerbitzuren bat betetzera-koan, zerbitzuaren arabera-ko prestakuntza beharrezkoa da eta horretarako ikastaroak antolatzen ditugu.

- Zer motako ikastaroak?


- Sokorrismoa, aisialdia, zerbitzu sozialari buruzko hitzaldiak eta horrelako gauzak.

- Osasuna, maitasuna eta dirua. Orden honetan?

- Baietz uste dot.

- Gurutze Gorriko profesional batek zein ezaugarri izan behar ditu?

- Lehenengo asko gustatu behar zaio pertsonekin erlazionatzea. Bigarrenez,



“Nere bizitza izugarri apreziatzen ikusidut. Eta hori oso garrantzitsua da”

ordu asko sartzeko prest egon behar da eta azkenik, ikasteko prest egotea. Anbulantzian irtetean gauza asko ikasten dituzu bizitzari buruz eta bereziki bizitza izugarri apreziatzen ikusidut. Besteei emateko zuk ere eduki behar duzu.

- Zer da Gazteen Gurutze Gorria?

- Aisialdi talde bat da eta 9 urtetik 11 urte bitartearainoko hogeitau hurrekin lan egiten dugu hiru helburua betetzeko asmotan: osasuna, solidaritatea eta berdintasuna (bai pertsonen artean bai arrazen artean).

- Zergatik hurrekin?

- Errazagoa delako umeak hezitzea, irekiagoak direlako. Gazteekin (14-15 urte bitartekoekin) zailagoa da lan egitea, izan ere, hauek badituzte jada bere ohiturak eta berehala aspertzen dira. Hasiera batean saiatu ginen gazteak motibatzen baina desertzio tasa oso altua izan zen eta horregatik erabaki genuen hurrekin lan egiten hastea.

- Beraz, 14 urtetik gorakoekin lan egitea ezinezkoa da.

- Ez. 14 urtekoren bat etortzen bazaigu ez dugu

kanpora bidaltzen. Hauei ekintzen iturri izatea gustatzen zaie, ekintzaren protagonista izatea dute gogoko eta horregatik beraiekin ildo honetan egiten dugu lan beraien esku lagaz ekintzen antolakuntza.

- Pertsona nagusiengan pentsatu al duzue?

- Bai eta gure asmoa da hauekin serio lanean hastea aurrean. Oraindik ez dugu ezer programatuta baina asmoa badaukagu.

- Zer da zuretzat solidaritatea?

- Solidaritatea denon beharrezko konpromezua da. Bai gure alboan dagoenarekiko bai urrutian dagoenarekiko ere bai. Askotan gertatzen da kanpokoarekin gure ondoan dagoenarekin baino solidarioagoak izaten garela.

- Elgoibartarrak solidarioak al gara?

- Nere ustez neurri handi batean bai eta honen lekuko da, jostailu solidarioen bilketa kanpainen Elgoibarko herriak izan duen erantzun ona.

- Zoriontsu izateko formula?

- Zoriontsu izateko gustatzen zaizkidan gauzak egiten saiaturen naiz, neskaekin ondo pasatzen eta besteei laguntzen.

AMAIA GOROSTIZA

**Jon Arrizabalaga**Rezola  
gasolindegikoa

● **Zer dela eta zaude gasolineran lanean?** ▶ Diru piska bat irabazi eta gurasoei eskatu beharra ez izateko.

● **Nola ikusten da mundua gasolindegi batetik?** ▶ Nahiz eta krisia dauala esan, ikusten da edozeinek auto on bat dakala eta asko gastatzen dala.

● **Nor da errepideetako erregea?**

▶ Deskapotable baten dabilen tipo elegantia.

● ● **Eta San Migelekoa?** ▶ Ni neu.

● **Neska "super" bat?** ▶ Claudia Schiffer.

● **Autoa ala motorra?** ▶ Bixak gustatzen jataz.

● **Zerk erretzen zaitu?** ▶ Berekoitasunak; solidaritate ezak.

● **Zer gustatuko litzaizuke ziztu bizian pasatzen ikustea?**

▶ Azterketak.

● **Eta astiro-astiro?** ▶ Libre daukadan denboria.

● **Zein gairi emango zenioke "jabonatu" eder bat?** ▶ Politikari.

● **Pertsona lehorra al zara?** ▶ Normala kontsideratzen naiz.

● **"Kaskoan" bueltaka darabilzun proiektu bat?** ▶ Nere ikasketak bukatu eta gero ikasitako alorrean lanpostu bat topatzea.

● **Seguritatea ala abentura?** ▶ Abentura.

● **Zer esaten dizu Taugres hitzak?**

▶ Alde batetik azulejuak eta bestetik, emozioa.

● **Nor gustatuko litzaizuke mangera batez blai-blai eginda uztea?**

▶ Pazientziarik ez duen edozein ipurterre.

● **Ibili al zara Bilboko metroan?** ▶ Ez, baina gustauko jatan.

● **Zein markako autoa duzu?**

▶ Opel Corsa horixa eta Bilboko matrikuliakin.

● **Eta zein auto marka gustatuko litzaizuke edukitzea?** ▶ BMW bat.

● **Nora ez zinateke autoz joango?**

▶ Edozein tokitara joango nintzateke.

● **Bertsolari bat?** ▶ Nere anaixa: Javier Arrizabalaga alias "Ziarda".

● **Eta zu zer moduz moldatzen zara bertsoan?**

▶ Oso gaizki, ze ez dot ulertzen eta ez jataz gustatzen.

AMAIA GOROSTIZA

**HEMEN DA KUKUA****NEURRIA:**

Zortziko handia

Udaberria heltzearekin

kukua dator kantari

basoko jauntxo maltzur dotore

alper eta bidaiari.

Zuhaitz puntetan ibiliko da

kantuz tente eta adi

kumea berriz lagako dio

txantxangorri kutxauari.

Berari buruz uste zahar bat

datorkit niri burura,

gure arbasoen ipuin zaharrak


esaten duen modura.

Diru piska bat patrikan eta

zoazte mendi ingurura,

ea aberasten zeraten denak

kuku kantuen kontura.



AITZOL ARRIOLA



- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal

**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ASEGUEROAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91

**TXURI BELTZ**

**Taberna**

San Franzisko 38

## Prezio bajaran alokatu nahi ditu Udalak Sigmako pabiloiak

Urtebete inguru pasa da Sigmak ateak itxi zituenetik. Orduetik hona makina bat gauza izan dira tartean, batez ere kalean gelditu ziren langileen aldarrikapenak diruari dagokionean. Zenbait gauza lortu badituzte ere, oraindik beste asko geratzen dira bidean. Eta garrantzitsuena, hauetariko asko eta asko berriz ere lanean hastea da.

**L**angabetu gehienek 40 urte inguru dituzte, ikasketarik apenas baina esperientzia asko. Perfil hori ikusita ez da gauzarik errazena gaur egungo merkatuan lanik topatzea, esperientzia ezezik, ikasketak ere eskatzen baiti-

ra. Halere, Gerolan-en laguntzaz, besteak beste, formazio ikastaroak eman, kurrikulum-ak nola egin eta bestelako hainbat teknika irakasten zaizkie ahalik eta prestakuntzarik handienaz aurkeztu daitezten enpresetan.



Sigmako pabilioei irtenbidea eman nahi die Udalak.

### Sigmako pabilioia

Honekin batera, Sigmako pabilioien arazoa dago. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak berau enpresa handi batek erostea nahi luke baina hori gertatu bitartean, irtenbide bat eman nahi dio Elgoibarko Udalak. Gillermo Garate alkateak esan digunez, "enpresa txikiak etorri zaizkigu Sigmako pabilioiak eskatuz. Izan ere, enpresa hauek ez dute diru nahikoa Itziar edo beste industriguneetara joateko eta aukera ona izango litzateke beraientzat Sigman txoko bat izatea".

Hiru baldintza edo lehenetsun markatzen ditu Udalak pabilioiak zein enpresei eman erabakitzeko orduan, "batetik lanpostuak sortuko dituen enpresa izatea. Bestetik, Sigmako langabetuek sortutako enpresa berriren bat izatea eta hirugarrenik, nahiz eta formaziorik izan ez, Udaletxea arduratuko litzateke IMH edo besteren baten bidez, beharrezkoa duten formazioa emateaz". Momentuz Eusko Jaurlaritzari jakin arazi dio alkateak bere asmoa eta erantzunaren zain daude. Nolabait, Sigmako pabilioiak prezio bajaran eskuratzeko aukera izango lukete enpresek.

**HERRIGAIN**  
**ERRETEGIA**  
San Pedro auzoa 4  
(74 30 40) ELGOIBAR

**MIREN**  
arraindegia  
Santa Ana  
74 34 49  
ELGOIBAR

JOSE ANGEL ZABALA  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Merkatu Plaza 33-34

**GARAY**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA  
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92


## Altzola

- Altzola bailaratxo estua, antzinan Mendaroko bailaran kokatzen zen eta Elgoibar hiribildutik lau kilometrotara aurkitzen da. Altzola Elgoibarko auzo bat da hau sortu zenetik, 1346tik hain zuzen.
- Auzoaren sorrera eta garapena ibai-portuari lotua dago. Bertatik Debaraino dauden azken hamar kilometroetan, ibaiak eskaintzen zuten nabigarritasuna aprobetxatu zuten ugazabek (Altzola, Andikano, Karkizano, Apraiz...) burdinkia garraiatzeko (lehen aipu dokumentala 1442koa da).
- Garai hartan, ibaiak garraiorako abantaila handiagoak eskaintzen zituen bailara estuko bide zidorrek baino. Harrez gero, ingurukoek, itsasoz eta lurrez zetozen merkatal gaientzako lonjak eraikiz, Altzola-ko merkatal garapena bultzatu zuten.
- Lonjari hauek, euren "ala" edo "gallupa" (txalupa txikia, laua eta zabala, txanela baino zerbait handiagoa) izenekoen bitartez Debatik Altzolara eta hemendik Debara Gaztelako artilea eta zereala, bur-

din barrak, erremintak eta armak garraiatzen zituzten, besteak beste. Bai eta itsasotik barrura iristen ziren burdinkia, bakailoa, bale-koi-pea eta abar. Lonjen jabeak itsasontzietako nagusien eta lurreko merkatarien arteko artekariak izaten ziren.

- Batzuk, artekaritzan ezezik, bestelako ekintzan ere aritu izan ziren. Altzolatarrak, esaterako, urrutiko merkataritza landu zuten, Meditarrenora, Sevilla eta Portugalera, Amerika, Ternua edo Terranovara ere iritsi zirelarik euren negozioak.
- Altzolak XVI. mendean burdinola bat, Olaetxea edo "Altzolakoa", sei lonja eta zenbait etxe zituen. Hauek etxe batzuk dorretxeak ziren: Torrekua, Izeta, Aurretxe, Andonategi, Albizkoa eta Olaetxea. Hauek batzuk oraindik ere zutik daude zorionez, XIX. mendera arte hedatu zen merkatal iharduera oparoaren lekuko izanik.

PELLO ARRIETA



## Lorenzo Gorostiza Osoro (1897-1977)



- San Bartolome kalean jaio zen 1897ko Arrate egunean.
- 12 urterekin hasi zen San Bartolome kaleko bizartegian anaiari laguntzen. 1923an Lorenzok Errosario kalean ilea-paindegi propioa ireki zuen.
- Goizeko 7etan jaiki eta gaueko 11ak arte ematen zuten lanean. Libre zuten tarteetan alpargatak egiten edo kazaginan aritzen ziren.
- Igande goizetan lan egin eta astelehen arratsaldetan bizartegia ixten zuten bailarako bizartegietakoek merienda egiteko aprobetxatzen zutelarik.
- Futbolzale amorratua, Club Deportiboko sortzaileetariko bat izan zen. 75 urte zituela, Lerungo zelaia berritze lanen osteko inaugurazioan, ohorezko sakea egin zuen. Ordurako 1 zenbakiko bazkide txartela zuen Lorenzok.
- Errosario kaleko Luis taberna traspasoan hartu eta Gorostiza taberna ezaguna ireki zuen, kirolzaleen bilgune zena. Duela pare bat urtera arte seme-alaben kargura egon zen Lorenzoren taberna.
- 1977ko ekainaren 27an hil zen.



## Gabiola GESTORIA

Apirilaren 1ean, Errenta Aitorpena garaia hasten da.  
Guk lagunduko dizugu **LEHEN BAIT LEHEN EGITEN.**

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR



## MEKANOSA

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## MOTZAK

### Mendi trabesia

Morkaiko Mendizale Elkartek Goizuetatik Aranazera mendi trabesia antolatu du iganderako, hilak 31. Mendi ibilbidea Goizuetatik hasiko da, Arantziatik igarota, azkenean Aranaz-era iristeko. Sei bat orduko bidea da, Morkaikoaren esanetan, "zailtasunik gabekoa". Trabesiara joan nahi duten mendigoizaleek goizeko 7,30etarako egon beharko dute Plaza Handian. Bestalde, federatu karnetak egoitzan jasotzeko moduan daudela jakinarazi nahi die elkarteko zuzendaritzak oraindik jasotzeko dituzten bazkideei, lehenbailehen Errosario kaleko lokaletik pasatzeko eskatuz.

### Josu Ibarra Errealerako konbokatua

Josu Ibarra futbolari elgoibartarra Errealeko lehen mailako talderako konbokatu zuten ostegunean Oviedon jokatu zen partiduan. Ibarra Sanseko jokalaria da, eta ekipo nagusiarekin jokatzeko deitzen duten lehen aldia izan zen osteguneko. Elgoibartarrak 17 urte baino ez ditu eta dagoeneko 18 urtez azpiko Espainiako selekzioko kidea da.

### Pilotako emaitzak

Elgoibarko Lagunak Pilota Eskolakoak Zaldibiko IV. Promozio Txapelketan parte hartu zuten joan den asteburuan. Benjamineko Bergara eta Murua bikote elgoibartarrak 18 eta 8 irabazi zuten Etxeberria eta Lasa anoetarren aurka. Gaztetxoetan, berriz, Garate eta Leon elgoibartarrek 22 eta 18 galdu zuten, 4 tantura geratu baitziren Esnaola eta Zuloagaren atzetik.



Ramon Garcia:

## "Afizionatuetara iritsi nahi dut gutxienez"

### ■ Zer moduz denboraldia?

- Espero baino hobeto. Lehen lasterketan aurre aldean ibili nintzen; bigarrenean erorketa izan nuen baina hirugarrenean berriz, ondo sailkatu nintzen. Kadeteetatik lehen urteko jubenetara igo naizenez aurre, ez nuen gauza handirik egitea espero.

### ■ Konpetizioa gogorra al da?

- Nahikoa. Kilometro asko egiten dira, euria, hotza edo beroa egin. Datorrenari aurre egin behar. Prestakuntza eta zure burua zaintzea oso garrantzitsua da. Ondo jan, litxarria gutxi, pisua zaindu eta kilometro asko egin eta ur asko edan.


■ **Modeloek baino gehiago zaindu behar** - Bai. Batzuek dieta bat jarraitzen dute eta beste batzuek janaria pisatu eta hori jaten dute.

■ **Dieta propioa duzu?** - Bai, baina orain medikuarekin hasi behar dut. Esfortzu frogatu egin ondoren pisua aztertu behar dut.

■ **Entrenamenduak?** - Egunero hainbeste kilometro. Asteburuan 70 kilometroko lasterketa korritu behar badut, beste horrenbeste edo gehiago egiten dut egunero, lasterketa egunean ondo ibiltzeko.

### ■ Atsedunik?

- Asteburuetan lasterketa izaten dut, hortaz, askotan ez dut atsedunik izaten. Hemendik aurrera egunero entrenatzea



tokatuko zait, etenik gabe, Donostiako itzulia korritu behar baitut hilabete barru. Lau egun dira 80-90 kilometro egunero.

■ **Errepidean ibiltzen zara?** - Bai eta sekulakoak entzundakoa naiz. Kamioi gidariak dira txarrenak. Badira bota egiten zaituztenak, bidea ixten dizutenak... Errespetu falta itzela dago. Zerbait gertatuz gero, onena auto gidariaren matrikula hartzea da eta horren berri ematea.

■ **Parte hartzea nahiko zenukeen lasterketa bat?** - Bergaran izango den premundiala. Parte hartzeko aurreko bi lasterketan lehen 20ren artean sailkatu behar naiz. Zaila da aurrez ezer esatea; aste batean ondo ibil zaitezke eta hurrengoan eskas.

■ **Merezi al du hainbeste sakrifrikatzeak?** - Zaila da profesioalari iristea erdi mailakoentzat. Baina

gustuko baduzu, merezi du. Urte asko behar dira eta nahi duzun hori lor dezakezula sinetsi behar duzu. Gutxienez afizionatuen 3. urtera iristea nahiko nuke eta profesionala izatea nire ametsa litzateke.

- Adina: 17
- Bizikleta marka? Pinarello
- Maillotaren kolorea? Arrosa
- Aldapa behera frenoak apurtuz gero? Zaila da gertatzea baina hala balitz, edonola gelditu



## GAZTELU

Mota guztietako

*Ezkontza soinekoak*  
berriak eta bigarren eskukoak  
50 modelo baino gehiago

Zatuz konpromezurik gabe! Legarre behea, 9 - Tel. 10 81 59 -





### URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



**U**rasandiko Futbito Txapelketa azken fasean dago. Urrian hasi zen txapelketaren azken partiduak jokatzen ari dira. Duela hiru jardunaldi Liga eta Kopa hasi ziren. Aurten 8 zortzi talde aritu dira Ligako norgehiagokan: Karkis, Kosakos, PSK eta Aldavas A taldean, eta Sanroketarrak, Orbela, Oraiko Disko eta King-Kong B taldean. Hauetatik igandean jokatuko diren finalerdietan talde bakoitzeko lehen bi eki-poak arituko dira. Kopan berriz, 12 taldek jokatu dute, hiru ekipoko

lau taldetan banatuak: lehen taldean Rebel Urbi, Roke eta S. Karapola. Bigarrenean Udaberri, B. Duro eta S. Braga; hirugarrenean Lucky Luke, Ikus Optika eta S. Pitxote eta laugarrenean Pedrusko, Aterpe eta Ametsa. Finalerdiak talde bakoitzeko lehen ekipoen artean jokatuko dira. Finalak Aste Santuko oporretatik bueltan izango dira eta segidan sari banaketa egingo da. Aitor Elizburuk esan digunez, Urasandin edo Kiroldegian jokatuko dira finalak. Zor on talde guztiei!!

## LIGA

A	Jokatuak	Irabaziak	Ernateak	Galduek	PUNTUAK
1. KARKIS	3	2	1	0	5
2. KOSAKOS	3	1	2	0	4
3. K.S.P	3	1	1	1	3
4. ALDAVAS	3	0	0	3	0

B	Jokatuak	Irabaziak	Ernateak	Galduek	PUNTUAK
1. SANROKETARRAK	3	3	0	0	6
2. ORBELA	3	2	0	1	4
3. ORAIKO DISCO	3	1	0	2	2
4. KINGKONG	3	0	0	3	0

## Kopa

	Jokatuak	Irabaziak	Ernateak	Galduek
1. REBEL URBI	2	2	0	0
2. BAR ROKE	2	1	2	1
3. S.KARAPOLA	2	0	0	2

1. LUCKY LUKE	2	2	0	0
2. IKUS POTIKA	2	1	0	1
3. S. PITXOTE	2	0	0	2

1. UDABERRI	2	1	1	0
2. B. DURO	2	1	1	0
3. SPARTAK BRAGA	2	0	0	2

1. PEDRUSKO	2	2	0	0
2. ATERPE	2	1	2	1
3. AMETSA	2	0	0	2

### Futbola

Juventus 0 - Haundi 2  
 Elgoibar 2 - Touring 3 (1. erreg.)  
 Zumaia 2 - Elgoibar 0 (Jubenilak)  
 Añorga 3 - Elgoibar 3 (Kadeteak)  
 Elgoibar 2 - Lagun Onak 0 (Infantilak)  
 Almen 0 - Elgoibar 9 (Neskak)

### Saskibaloia

Txankakua Elgoibar 55 - Orio 48

### Eskubaloia

Elgoibar 9 - Pulpo 15 (Kad. neskak)  
 Elgoibar 35 - Bidebieta 16 (Kad. mut.)  
 Arrate 16 - Elgoibar 21 (Kad. mutilak)  
 Egia 22 - Elgoibar 19 (Jubenil mutilak)

### Areto Futbola

Elgoibar 4 - Cactus Yooger's 2 (2. maila)  
 Elgoibar 2 - Cocinas Urarte 3 (1. maila)

### Pilota

Elgeta 18 - Lagunak 4 (Koxkortuak)  
 Elgeta 22 - Lagunak 7 (Gazteak)  
 Elgeta 22 - Lagunak 20 (Nagusiak)

### Futbitoa

S. Karapola 2 - Revel Urbi 6  
 Ikus Optica 8 - S. Pitxote 3  
 Berrogei Dura 2 - Uda Berri 2  
 Orbela 4 - Oraiko 0  
 King-Kong 0 - Sanroketarrak 6  
 Karkis 1 - Kosakos 1  
 Aldevas 1 - PSK 7

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

#### Larunbata, 30

10,15 Elgoibar - Eibar (kadeteak)

12,00 Elgoibar - Lizardi (Neskak)

17,00 Haundi - UPV

#### Igandea, 31

10,00 Eibartarrak - Munibe (Jubenilak)

12,00 Gazteak - Soraluze (2. erreg.)

13,45 Urki B - Urmieta (Jubenilak)

16,00 Elgoibar - Euskalduna (Jubenilak)

19,45 Elgoibar - Eibartarrak (Infantilak)

### Eskubaloia, Kiroldegian

#### Larunbata, 30

16,00 Elgoibar - Hondarribi (Kad. mut.)

17,30 Elgoibar - Bidebieta (Jub.mut.)

### Areto Futbola, Kiroldegian

#### Ostirala, 29

Elgoibar - Pescados G.J.A. (2. maila)

### Futbitoa, Urasandin FINALERDIAK

#### Igandea, 31

11,00 San Raketarrak - Kosakos (Liga)

Pedruskos - Rebel Urbi (Kopa)

12,00 Karkis - Orbela (Liga)

Uda Berri - Lukie Luke (Kopa)

## MOTZAK

### Garate eta Angulo, Gipuzkoako Judoko txapeldunordeak

Ibai Klubeko Gorka Garate eta Karlos Angulo joan den asteburuan Donostian izan zen Gipuzkoako Judo txapelketan bigarren postuan geratu ziren 17 urtez azpiko mailan. Gorkak ondo baino hobeto hasi zuen txapelketa baina azken borrokaldira ezin izan zuen irabazi eta hortaz, zilarrezko domina eskuratu zuen. Carlos Angulok lehen aldiz hartu zuen parte Gipuzkoako Txapelketan. 78 kilora arteko mailan honek ere zilarra irabazi zuen. Hirugarren partehartzailea, Javier Quintano izan zen baina lehen itzulian txapelketatik kanpo geratu zen. Zilarrezko dominei esker laister batean jokatu den Euskadiko Txapelketan parte hartzeko aukera izango dute Garate eta Angulok.

### Eskubaloiko kadeteak bigarren geratu dira

Elgoibarko Eskubaloit Taldeko kadeteen nesken eta mutil taldeek joan den asteburuan jokatu zuten ligako azken partidua. Kadete neskek partidua garrantzitsua jokatu zuten zapatuan Kiroldegian Zumaiaiko Pulporen aurka. Zumaian jokatu zuten partiduan bost golen aldearekin irabazi zuten elgoibartarrek baina herrian seirengatik galdu zuten, hortaz, bigarren postuarekin konformatu behar izan dute Elgoibarko kadete neskek. Partiduan asko berotu omen ziren animoak, gol baten gorabeheran egon baitzen lehenengo edo bigarren izan. Kadete mutilek ere amaitu dute dagoeneko liga eta hauek ere bigarrenak geratu dira. Jubenilek, berriz, asteburuan jokatu dute azken partidua eta irabazten badute bigarren postuan geratuko dira.

## Sokorrismoari eta elbarrituen kirolari buruzko ikastaroak Elgoibarren

Elgoibarko Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzuek, Deba bailarakoekin batera, "Kirola Euskaraz" programarekin jarraituz, bi beka kaleratu dituzte kirol gaiak euskaraz argitaratzeko. Honez gain, apiriletik ekainera bitartean izango diren kirol ikastaroak ere antolatu dituzte.

**K**aleratu diren bi beketatik bat, eskolarteko jokoetan, heziketa fisikoan eta klubetan haur eta gazteekin dabilzan teknikari eta irakasleei zuzendutako atletismo eta futbolari buruzko fitxa didaktikoak sortzeko da. Landu beharreko gaiak kirolaren historia, berotze-ariketak, lasaitze-ariketak, oinarrizko arautegia eta progresio didaktikoa dira. Laguntzaren zenbatekoa 250.000 pta.koa da. Bigarren beka LOGSE erreformaren aplikazioaren ostean sortutako kirol titulazioei buruzkoa da. Kirol mediku eta kirol litentziatuek lantzeko proposak diren gaiak osatzen dute beka hau: zientzia biologikoen arloa, portaera zientzien arloa, entrenamenduaren teoriaren oinarriak eta kirol antolaketa eta legeria. Laguntzaren zenbatekoa 400.000 pta.koa da. Informazioa eskuratzeko Udal Kirol Zerbitzura zuzendu (74 44 15).


#### Kirol ikastaroak

Bost ikastaro dira guztira. Titulu ofiziala lortzeko bakarra: uretako sorosle edo sokorrista ikastaroa. Apiriletik ekainera arte luzatuko da, klase teorikoak eta praktikoak izango dituelarik. Bergaran, Mendaron eta Elgoibarren emango dira klaseak. Gutxienez 10 ikaslez osatu beharko da taldea. Prezioa 36.000 pta.koa da Deba bailarakoentzat eta bakarrik ikastaro praktikoak egin nahi dutenentzako prezioa 26.000 pta.koa.

Titulu gabekoen artean pati-



AITOR ZABALA




naia, elbarrituen kirola, kirolarien elikadura eta fitnessa izango dira aukeran. Oinarrizko patinaia Aretxabaletan eta Mutrikin izango da; hobekuntzako patinaia eta fitness-egiteko Arrasatera joan beharko da. Elgoibarren elbarrituen kirolei buruzko ikastaroa emango da eta Eibarren kirolarien elikadurari buruzkoa. Infomaziorako edo izena emateko Elgoibarko Udal Kirol Zerbitzura deitu (74 44 15).

#### Jardunaldiak

Kirola eta euskarari buruzko jardunaldiak antolatu dira "Kirola Euskaraz" programaren barruan. Eibarren izango dira goizez eta arratsaldez, eta asmoa "Kirola Euskaraz" programaren berri ematea da esperientzia hau ezagutzen ez duten herrietakoentzat.

# Zabale anaiek lehen saria irabazi zuten igandean porrusaldan

Xabier eta Ibon Zabale anaia azkoitiarrek Euskadi Irratiak antolatutako Pieza Berrien txapelketan lehen saria irabazi zuten porrusalda atalean. Joan den igandean Azpeitin izan zen finalerako, zortzi-bederatzi trikitilari sailkatu ziren. “Finalean zaudela zure pieza ahalik eta ondoen jotzen ahalegintzen zara”. Xabier Zabaleren hitzei helduz, horixe da igandeko finalean egin zutena, ahalik eta hobetoen jo eta lehen saria poltsikoratu.



Ibon eta Xabier Zabale anaiek 1. saria irabazi dute porrusaldan.

**E**lgoibarko Trikiti Eskolako irakasleak diren Xabier soinu-jolearen eta Ibon panderojolearen “Balio ez dunak ez du balio” izeneko pieza berria izan zen porrusalda ataleko garailea. “Trikiti pieza modernoa” da egilearen arabera, “alaia”. “Neskatan dabilen mutil baten desesperantzak kontatzen ditu, ligatu nahi baina arrakasta gehiegirik ez duena”. Trikiti pieza irabazlearen letra Euzkitze bertsolari ezagunak idatzitakoa da. Txapelketa honetan parte hartzen duten bosgarren aldia aurtengoa. Aurten ezezik, iaz eta duela bi urte ere, saririk irabazi zuten Zabale anaiek.

Jaialdietan jo eta sariak irabaz-

teaz gain, Zabale anaiek Elgoibarko Trikiti Eskolako irakasle eta ardurdunak dira. Aurten 15 haur dituzte panderoa ikasten eta 40 bat soinua.

## Diskoa prestatzekotan

Zabale anaiekin batera Lourdes Alkorta aritzen da jaialdietan jotzen, batzuetan soinua eta beste batzuetan kitarra. Duela hiru-lau urte 12 piezako diska kaleratu zuten Ibon eta Xabier Zabalek. “Auspoa astinduz” izenburukoa, 11 pieza Xabierrek egindakoak dira eta bat Flaco Jimenez-en abestia da. Aurrera begira, diska bat prestatzeko asmoa dute. “Oraindik ez dugu ezer egin baina hastekotan gaude”.

## Azpilikueta-aren Erakusketa

Antonio Azpilikueta-aren “Desagertutako baserriak eta erreportaiak” izeneko argazki erakusketaren inaugurazioa izango da gaur, hilak 29, arratsaldeko 7etatik aurrera Kultur Etxean. 23 baserriren argazkiak daude ikusgai: Albizuri, Aldai, Aosar, Andikano, Arregi-Torre, Argingua, Austakon, Gibraltar, Kakatza, Lauko, Mendibeltzu, Muniola, Olaso, Olazarra-Goikoa, Palazzo, Pepeingua, San Antolin, Soarte, Toletxe, Ugarrua, Unastegi-Errota, Urkaregi eta Usetxe. Erakusketa apirilaren 14ra arte egongo da irekita.

## Itxaropenaren kontzertua

Bihar, hilak 30, Elgoibarko Itxaropena abesbatzak, Jose Luis Franzesena organo jotzailearekin batera, kontzertua eskainiko du San Bartolome parrokiaren arratsaldeko 8etan. Lehenengo zatian Jose Luis Franzesenak bakarrik joko du eta bigarren zatian Itxaropena abesbatzak zortzi obra abestuko ditu.

## Markeliñe antzerki taldea Mapirilaren 19an

Datorren apirilaren 19an Eibar-ko Antzerki Jardunaldietan parte hartu duen Markeliñe taldeak “La Garbo S.A.” obra mutua antzeztuko du Herriko Antzokian. La Garbo izeneko garbiketa enpresako bi kale garbitzaile-oren gorabeherak kontatzen dira obran, baina hitz bat bera ere esan gabe. Antzezleak Iñaki Egiluz eta Javier Renobales dira. Antzezlari honek Azpeitiko XIII. Euskal Antzerki Topaketetan ikusle goaren eta epaimahaikoen lehen saria jaso zuen.

## Miren Gorrotxategi:

### “Lehiaketak irabaztia salto haundixa izan leike”

**D**onostia Hiria piano lehiaketako bigarren saria eta Gipuzkoako lehenengoa eskuratu berri ditu Miren Gorrotxategi. Orain dela bi urte ere bigarren postuan geratu zen. 17 urte dituen elgoibartar honek 10 urte daramatza pianoarekin eta esan digunez, ahizpari etxean ikusita erabaki zuen berak ere instrumentu hori ikasi nahi zuela. Gaur egun Inazio Bereziartua Musikeskolan ezezik, Donostiako Kontserbatorioan ere dago.

#### - Zorionak Miren. Pozik, ez?

- Bai, ilusiua eitzen dau eta salto haundixa izan laike. Egunero eta urte askuan orduak sartzen ditxuzu etxian zure kontura baina zuretzat bakarrik izaten da. Ilusiua eitzen dau beste batzuk entzuta eta gainera holako sarixa jasotziak. Estimatzen dabela ikusten dozu eta egixa esan ona sakrifikau bihar da eta inportantia da.

#### - Zenbat ordu egunean?

- Nik bihar baino gitxio, hiru ordu. Behin 8. kursora ailegautakuan, egunero 8 ordu sartzeko esaten dabe baina ni nahiko alperra naiz.

#### - Piano ikasketekin jarraitzeko asmoa duzu?

- Asmua bai. Oin 8. kurtsua amaitxuko dot eta klasiak emateko diplomía emango die. Gero beste bi kurtsu gehixo dia karrera amaitzeko. Nik amaitzia nahi dot baina bada ez bada ere, enpresariales edo ikasi nahi dot.

#### - Oso txikia zinela hasi zinen pianoarekin, ez?

- Bai. Nere ahizpak jotzen zaban eta etxera pianua ekarri zebe-nian ni oso txikixa nitzan arren, han ibiltzen nitzan, kriston haundixa beitzintzen jatan pianuan aurrian jarri eta emozionauta jotzen.



Donostia Hiria Lehiaketako bigarren saria eta Gipuzkoako lehenengoa irabazi ditu Miren Gorrotxategi elgoibartarrak.

#### - Halere, biolina ere gustatzen zitzazun.

- Bai, dudia nakan. Baina Reginak esan zian hobe nakala lehenengo pianua ikastia, belarrixa eitxeko. Gero hasiko nitzala biolinakin. Nere ahizpa txikixa dau biolina ikasten eta batzuetan hartzen dot baina oso zaila iruditzen jata.

#### - Bakoitzak partitura berdin bati, interpretazio ezberdina ematen dio. Nola da hori?

- Partiturak oso irekixak dia. Nota konkretu batzuk daude baina gero zuk erabakitzen dozu zeri em a n

garrantzi gehixo, belozidadia... Gauza asko dia eta horren arabera gauza desberdina transmititzen dozu.

#### - Musika definitu beharko bazenu?

- Sentimenduak azaltzeko beste hizkuntza bat da. Haserretzen naizenian ostikadak ematen dizkiot pianuari eta ondo ateratzen jatanian, mimau eitzen dot.

#### - Sekula konposatu al duzu zerbait?

- Saiatu izan naiz baina zaila da. Ondiokan armonia bigarren kurtsora arte bakarrik egin dot eta konposizioko gauza gehixegi ez dakitx.

#### - Eta orkestra zuzendari?

- Hori ez, sekula ez jata burutik pasatu.

#### - Piano irakasle ala kontzertu emale nahiago?

- Bixak. Kontzertuak ematia oso politxa da eta nik usten dot klasiak ematia ere gustatuko jatala. Dana dala, profesionala izatia oso zaila da.

*• Kolako pianoa ala bertikalak?  
Kolakoa, soinu hobia daka.  
• Autore bat? Bartok.  
• Zein kontzertura joango zinake gustura? Hertzainak.  
• Beste afiziorik?  
Telebista ikusi*

## Garajeak

Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.  
☎ 74 00 39

Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren.  
☎ 74 30 81

## Lana

Era guztietako GARBIKETAK egingo nituzke.  
☎ 74 15 42

RETOKE FOTOGRAFIKOA eta KONPOSIZIOA egiten dira.  
☎ 74 32 94 Andres (getatik aurrera)

HAURRAK, PERTSONA NAGUSIAK EDO GAI SOAK zainduko nituzke. Esperientzia daukat.  
☎ 74 20 24 M. Angeles

INFORMATIKAKo klaseak emateko pertsona bat behar da. (Programazioa, eta programak de utilidades) Bidali kurrikulumak Bergarako 245 P. K.

ZIENTZIA ALORREKO KLASEAK emateko pertsona bat behar da. Bidali kurrikulumak Bergarako 245 P. K.

PERTSONA NAGUSIAK zainduke lituzkeen emakume heldu bat naiz.  
☎ 74 04 75

ETXEKO LANAK egiteko edo HAUR BAT ZAINTEZKO prest nago.  
☎ 74 05 32 Zoila

PROPAGANDA BANATZEKO jendea behar dut.  
☎ 74 30 37 (Deitu 10,00-13,00)

## Salerosketak

HAIZE BEROKO ARROPA SEKADORA saltzen dut. Oso gutxi erabilia. 15.000 pta.  
☎ 74 33 41  
gaueko 8etatik aurrera

BOXER TXAKURKUMEAK salgai. ☎ 74 28 68 (21,30etatik aurrera)

Bigarren eskuko ARGAZKI KAMERA bat saltzen dut. PRAKTIKA BX20. Egoera onean. 15.000 pta.  
☎ 74 41 12 Jasone

Bigarren eskuko KOTXESILLA BAT behar dut. Egoera onean.  
☎ 74 35 33 Antonia

IZOTZAK EGITEKO MAKINA eta MAKINA ERREGISTRADOREA salgai.  
☎ 74 38 85 Gloria

Martxan dagoen BODEGA/ARDANDEGI bat saldu edo alokatzen dut Ondarroan. 125 m<sup>2</sup>.  
☎ (94) 683 12 02

## Partikularrak

OHOk Klase partikularrak ematen ditut Mendaron.  
☎ 75 51 04 Ana (Arratsalde)

## Etxebizitzak

Jantzitako pisu handi bat daukat alokatzeko.  
☎ 74 04 75

## Agurrak

Zorionak Laurari, hilaren 27an urteak egin zituelako eta munduko ama onena dalako. Amaia.

Zorionak Inigo Garay-ri bere 7. urtebetetzean. Musu handi bat bere izeko eta aitxitza eta amamaren partez.

ZORIONAK hilaren 28an 6 urte bete zituen Asierri bere anaia Aitor eta familiaren partez.

Zorionak eta musu handi bat apirilaren 1ean urteak beteko dituen Loliri. Yolandaren partez.

## Bestelakoak

Bi urteko katu eme bat oparitu nuke. Etxeko bizimodura ohituta, kastratua eta bakunatua. Etxetxoa, ohea, komuna etab. ere oparitzen ditut.  
☎ 74 30 94 Flori

Herriko Antzoki inguran puntu lan bat eta jertsetxo bat dituen poltsa bat aurkitu nuen. Udaltzaingoa daude.

ERRENTA AITORPENAK egiten ditugu.  
☎ 74 16 88 Itziar  
☎ 74 07 61 Miren

ILEAPAINDEGI BAT alokatzen da Eibarren. Guztiz ekipatua.  
☎ 10 83 94

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest dauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.  
☎ 74 15 14 Maite

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning-a .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitalea756264  
Drogomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....102131  
Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Udal Kirol Patronatua..744415  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia .....740842  
Polikirolegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41  
Herri Eskola .....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I. ....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 27 59  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....10 84 21  
Zazpiki irratia .....74 34 74

# ASTEAN ZEHAR

## 29 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

## 30 LARUNBATA

10,00 KARAKATERA MENDI  
MARTXA

✓ Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Karakate Bizirik  
Plataforma

19,30-22,15 ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

20,00 ITXAROPENA  
ABESBATZAREN KONTZERTUA

Organojolea: Jose Luis Franzesena  
✓ San Bartolome parrokian

## 31 IGANDEA

7,30 MENDI TRABESIA

Goizueta-Arantza-Aranaz  
✓ Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

11,00 MEZA ETA PROZESIOA

✓ San Bartolome parrokian

12,30 GURE DANTZAK KALEJIRA  
ETA IKUSKIZUNA

**Partehartzaileak:** Haritz,  
Eltziegoko Dantza Taldeak, Elai-  
Alai Taldea, Tuterako Dantzariak  
eta Urdiñarbeko dantzariak.

✓ Plaza Handian (Euria egingo  
balu Kiroldegian)  
Antolatzailea: Kilometroak 96

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

18,00 DANTZALDIA (GELATXO)

✓ Jubilatuen Egoitzan

## 1 ASTELEHENA

20,00 HBren ENKARTELADA

✓ San Frantzisko iturrian  
Antolatzailea: HB

22,15 ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

## 2 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“La isla de las cabezas cortadas”

## 5 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“La red”

## 6 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“La red”

## 7 IGANDEA

11,00 MEZA ETA PROZESIOA

✓ San Bartolome parrokian

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“La red”

## 8 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“La red”

## 9 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“La red”

## 12 OSTIRALA

18,00 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA

“Mentes peligrosas”

# txandak

## FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
30, larunbata:	Yudego	Anduaga
31, igandea:	Yudego	Anduaga
1, astelehena:	Bidasolo	Anduaga
2, asteartea:	Bidasolo	Etxeberria
3, asteazkena:	Bidasolo	Ormazabal
4, osteguna:	Yudego	Yudego
5, ostirala:	Yudego	Yudego
6, larunbata:	Yudego	Yudego
7, igandea:	Yudego	Escala
8, astelehena:	Yudego	Escala
9, asteartea:	Yudego	Yudego
10, asteazkena:	Yudego	Yudego
11, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
12, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

## OKINDEGIA:

31, igandea:	DONA MERCEDES
4, osteguna:	EIZAGIRRE
5, ostirala:	FOTERO
7, igandea:	ZABALETA
8, astelehena:	IDARRAGA

# Zinea



## La isla de las cabezas cortadas

1668an, Caribeko irla zoragarri batean, altxor preziatu baten mapa zati bat heredatuko du emakume pirata batek. Honen aitak hil arte egin zuen borrokan anaiordeak altxorra topatu ez zezan. Aitaren itsasontzian beste pirata mordo batekin batera, maparen gainontzeko zatien bila abiatuko da. Mapa ulertzea zail samarra denez, enkante batean erositako esklabu intelektual eta dotore batek zeregin horretan lagunduko dio.

### La red

Angela Bennet informatika analista da. Lankide bati laguntzeko asmotan, Internet-era sartzeko programa berri bat deskubritzen du. Horri esker datu base askotara sartzeko aukera izango du bai eta Energia Atomikoaren Batzordeko basera ere. Bapatean, bere lankidea hil egiten da hegazkin istripu batean. Ezbeharrak bata bestearen atzetik gertatuko dira.

**GARAY**



San Frantzisko, 9 - Tel. 74 13 92

**ARMUETA**



Tel. 74 06 40  
San Bartolome, 16

**Gurrutxaga  
HARATEGIA**

San Frantzisko, 32 - Tel. 74 05 98



Santa Ana, 11 - Tel. 74 30 42

Gurea  
**KONFIDANTZAZKO**  
haragia da



**PATXI**

**harategia**

San Bartolome, 30 - Tel. 74 35 04

**HARATEGIA**

Merkatu Plaza - Tel. 74 17 83

**LANDA**



San Frantzisko, 23 - Tel. 74 27 58

**Agirre  
HARATEGIA**

Santa Ana, 5 - Tel. 74 05 97

Osakidetzak ziurtatu digunez Elgoibarko harategietan ez dago kutsatutako



**BIRE**

**ELEKTRONIKA-ELEKTRAGAILUAK**

Ubitarte Plaza, 3 - Tel. 74 14 87 - ELGOIBAR



**SUPERSER** Microondas



**CORBERO** hozkailua  
Mod. FB-5140E  
2 ate · 225 l.ko edukiera · Ate  
rebersibleak  
· 3kg/24h izozteko gaitasuna

**39.800**

**Hauetz gain ESKAINTZA  
handiagoa daukagu  
dendan.**

**ZATOZ aukera**

**Dirua aurreztu eta  
kalitatea irabazi**



**PHILIPS TB  
ESTEREOA**



## Tik-Tak

Etxeko txikienezako  
erropa eta jostailuak

Errosario, 21 - Tel. 74 17 15 - ELGOIBAR

# UDA BERRIA HEMEN eta ORAIN



## ecenarro

Lore ederrenentzat  
erroparik politenak

San Frantzisko, 10 - Tel. 74 26 19 - ELGOIBAR



Gazteentzako  
konplementuak


San Frantzisko, 27 - Tel. 74 32 06 - ELGOIBAR



## PINOTXO

Udaberriko koloreak  
oinetan

San Bartolome, 16 - ELGOIBAR



# camper

Spring'96



Ibiltzea gustatzen zait

San Frantzisko, 32 - Tel. 74 02 35 - ELGOIBAR